

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2013.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2013ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, EA Eren partaidetza % 50etik gorakoa zutenena. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ondoko sozietate eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoan .

- ALOKABIDE, SA
- STC-ELS, SA
- ETS

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2013ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, hiru kasuetan ikusi da kontratu txiki modura izapidetutako gastuak daudela, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokiokeen prozedurari jarraiki jaso behar ziratekeenak.

Bestalde, ELS, SAK hiru babesletza kontratu gauzatu ditu, modu zuzenean esleituz, publikotasun eta lehiarik gabe.

Sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2013ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla zuzena eta ekitaldi itxierako finantza egoera; ordea, ETSri ezargarriak zaizkion hiru salbuespen azpimarratu ditu, horietako bi ibilgetuko hainbat elementu banaka ez erregistratu izanari dagozkionak, kontularitzan 123 milioi euroren balio garbia dutenak, eta beste aktibo batzuk ez baloratu izanari buruzkoak, bietan ere, EJK atxikipen erregimenean dituenak; hirugarren salbuespena itzulgarriak ez diren diru-laguntzetatik eratorritako ondorio fiskala ez erregistratu izanaren ondorio da, ondare garbia 156 milioi euroan murriztea ekarriko lukeena.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki langileriarri eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkie, besteak beste.